

# Gerra iraultzailetik nazionalismo iraultzailera. Nazio-arazoaren eta biolentziaren inguruko hausnarketaren garapena ETAn (1958-1970)

Mikel Saratxo Moro

Zientzia Politikoa lizentziaduna, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Badaude gertakizun batzuk euskal nazionalismoaren historian inflexio-puntuak ezarri dituztenak. Haietako bat 1958an gertatu zen. Urte horretan euskal nazionalismoa ulertzeko, azaltzeko eta praktikara eramateko ikuspegi ideologiko berri baten hazia landatu zen. Urte hori ETAREN sorrerakoa izan zen. Bere historiako lehenengo urteetan, ETAK kontzeptu berritzaileak erantsi zizkion euskal nazionalismoaren oinarri ideologikoari, esate baterako, kolonialismoaren aurkako teoriak, nazionalismo iraultzailea, sozialismoa edo borroka armatua. Artikulu honetan ETAREN sorreratik 1970era arte erakundearen baitan biolentziari buruz eta euskal nazio-arazoaren inguruan egindako hausnarketaren garapena azaltzeaz gain, ETAREN gogoetan zehar bi elementu horien arteko harreman ideologikoa agertu nahi izan dugu.

GAKO-HITZAK: ETA · Kolonialismoa · Gerra iraultzailea · Marxismoa.

## **From revolutionary war to revolutionary nationalism. Evolution of ETA's reflection on the topic of violence and national problem" (1958-1970)**

There have been different events in the history of Basque nationalism that have supposed inflexion points on its development. One of those events occurred in 1958. In that moment, both a new ideological point of view and a new practical proposal were established into the Basque nationalist movement. That was the year of ETA's foundation. In its first years, ETA added several innovative concepts like revolutionary nationalism, theories against colonialism, socialism or armed struggle to Basque nationalism's ideological basis. Therefore, the aim of this article is to analyse the evolution of ETA's reflection on the topic of violence and national problem from its foundation to 1970, as well as to determine the ideological relationship between both concepts in ETA's case.

KEYWORDS: ETA · Colonialism · Revolutionary war · Marxism.

*Jasotze-data:* 2013-01-29. *Onartze-data:* 2013-02-27.

## 1. Sarrera

Asko izan dira ETAREN historia eta sorrera bera azaltzen saiatu diren autoreak, aldagai ezberdinen arabeko analisiak erabilia horretarako. Kasu askotan, ETAK bere historian zehar erabili dituen estrategien garapenari jarri zaio arreta, euskal erakundearen garaian garaiko hausnarketa ideologikoan sakontasunez erreparatu gabe. Artikulu honetan, aldiz, nazio-arazoaren eta biolentziaren inguruko hausnarketa teorikoa ikerketaren oinarritzko aldagaitzat hartuta, ETAREN 1958-1970 denbora-tarteko garapen ideologikoan zentratu gara. Horretarako, ETAREN garai horretako dokumentu ofizialak ez ezik, euskal erakundearen garapen ideologikorako eragingarrienak izan ziren autoreen idazki politikoak ere erabili ditugu. Halaber, artikulu honekin bi galderari erantzun nahi izan diegu:

1. Nolakoa izan zen ETAK bere sorreratik 1970era arte nazio-arazoari eta biolentziari buruz egindako hausnarketa teorikoaren garapena?
2. Ba al dago harreman ideologikorik ETAK nazio-arazoaren eta biolentziaren inguruan egindako hausnarketa teorikoen artean? Edo, badira era paraleloan teorizatu ziren bi elementu?

Artikulu kronologikoki ordenatu dugu, ETAREN denbora-garapena ahalik eta modu argien islatzeko asmoz. Izan ere, artikuluaren lehenengo bost ataletan ETAREN sorreratik bere V. asanbladara arteko denbora-tartean zentratu gara, erakundeak gerra iraultzailea eta nazionalismo iraultzailearen gogoeta teorikoa burutzeko erabilitako dokumentuetan arreta jarriz. Artikuluaren bigarren zatian, 1970. urtea mugarritzat hartuta, aipatu hausnarketa teorikoaren garapenaz aritu gara, erakundearen izandako barne-zatiketa ezberdinek nazio-arazoaren eta biolentziaren inguruan adierazitako jarrerak alderatuz, bi elementuen arteko harreman ideologikoa agertzeko helburuarekin.

## 2. Nazio-askapeneko mugimenduen eragina ETAN

ETAREN sorreraren arrazoiak ulertzeko, XX. mendeko 40 eta 50eko hamarkadetakako euskal nazionalismoaren norabideari erreparatu behar zaio halabeharrez. Izan ere, erregimen frankista ezarri zenez gero, EAJk eta erbestean zegoen Eusko Jaurilaritzak irudikatzen zuten euskal nazionalismo historikoari leporatutako geldotasun politikoa izan zen 1952an Ekin taldearen eta 1958an ETAREN sorrera eragin zuen arrazoi nagusia. Hala ere, bere historiako lehenengo urteetan, erakundearen oinarri ideologikoak ez ziren EAJrenetatik erabat aldentzen, nahiz eta bere I. asanbladan onartutako *Zuzenbide* txostenean alderditik ideologikoki urruntzen zuten zenbait ezaugarri bere gain hartu, hala nola akonfesionaltasuna, bere burua alderditzat barik euskal nazio-askapeneko mugimendutzat hartzea, edota sozialdemokraziaren testuingurupean euskal jendartearen askapen soziala berezko helburu politikotzat hartzea (Aiertza eta Zabalo, 2010: 13). Izan ere, bere militanteen formazio politikorako erabili zituen *Liburu Zuria* nahiz *ETA-koadernoak* bildumei erreparatuz gero, erakundeak borroka sozialaren eta nazionalaren arteko lotura ideologikoaren inguruan burututako lehenengo hausnarketak ez ezik, Hirugarren Munduko nazio-askapeneko erduei egindako goraipamenak ere irakur daitezke. Hain zuzen, ETA kolonialismoaren kontrako nazio-askapeneko

mugimenduen ereduetan oinarritu zela euskal nazio-arazoa definitzeko baieztatu dezakegu.

Esperientzia haietako adibiderik argienak Kubako iraultzan eta Aljeriako independentzia-gerran topa ditzakegu, alde batetik, eremu praktikoa eredu eragin-korrek zirela demonstratu zutelako, eta bestalde, nazio-arazoa, iraultza eta biolentzia aldagaiak ideologikoki bateratu zituztelako. Ekarpenean ideologiko haien artean, Frantz Fanon-en *Lurreko kondenatuak* liburuan biolentziaz, nazio-askapenaz edota kolonialismoaz esandakoak berebiziko eragina izan zuen euskal erakundearengan.

## 2.1. Euskal nazio-arazoa kolonialismoaren aurkako logikapean

Euskal nazio-arazoa Hirugarren Munduko ereduarekin alderatzeko, ETA kolonialismoaren aurkako ikuspegiaren bidez azalduko zuen planteamendu ideologiko eta estrategiko berri bat sortzeko beharrean zegoen. Kolonialismoaren kontrako eredu zenbait militanterean gorpuzten ari zen ikuspegi ideologikoa izan arren, ETAk ez zuen, oraindik ere, eredu hori erakundearen eredu «ofizialtzat» hartuta. Hala ere, eredu «antikolonialista» denbora motzean ETAn ikuspegi ideologiko nagusia bihurtu zen.

Nazio-arazoaren eredu ideologikoaren garapenarekin batera, ETA estrategia politikoa garatzeko premiaz konturatu zen. Aipatu Hirugarren Munduko esperientzietan aurrera eramandako estrategia politikoa gerra iraultzailea izanik, ETA horren jardueraz teorizatzen hasi zen; Kubako iraultzan praktikara eraman ziren Ernesto «Che» Guevara-ren teoriak<sup>1</sup> nahiz Txinakoaren testuingurupean Mao Zedong-ek idatzitakoek eragin handia izan zuten gogoeta horretan. Bi autore horiez gain, Federico Krutwig-ek idatzitako *Vasconia* liburuak euskal nazio-arazoa kolonialismoaren logikaren bidez azaltzeko bide teorikoa erakutsi zion ETAn.

### 2.1.1. Euskal Herria kolonia gisa: Vasconia

Federico Krutwigek 1963an Fernando Sarrailh de Ihartza izengoitiarekin argitaratutako *Vasconia* liburuak zeresan handia sortu zuen bere argitalpenetik. Autorearen iritziz, nazio-askapeneko mugimendu batek iraultzailea izan behar du. (Krutwig, 2006: 393) Haren ustez, nazio-askapena eta biolentzia kontzeptu zatiezina dira. Borroka armatuak dakartzen ekintza ilegalen harira, Krutwigen aburuz, nazioartean independentzia-aldarrikapen egitea hutsa ekimen ilegaltzat hartzen denez gero, herri batek, nahi eta nahi ez, ekintza ilegalez baliatu behar du independentzia lortzeko (*Ibid.*: 394). Aurrekoarekin lotuta, biolentziaren beharra ez du bakarrik ezinbestekotzat jotzen nazio-askapeneko fasean; behin herri zanpatuak bere askatasuna lortuta duela, biolentziaz baliatu behar du eskuratu dituen eskubideak defendatzeko Estatuaren aurrean (*Ibid.*: 395). Nazionalismoaz aritzean, estaturik gabeko nazioen nazionalismoa (askatzaileak) eta nazionalismo estatalak (zapaltzaileak) ezberdintzen ditu (*Ibid.*: 394). Autoreak erreferentzia zuzenak egiten dizkie Afrikan eta Asian buruturiko nazio-askapeneko mugimenduei, batez ere Aljeriakoari eta Vietnamekoari, euskal kasurako eredu garriak izan daitezkeelakoan. Halaber, Krutwigen aburuz, gerrillak bi aukera helarazi eta erakutsi behar dizkio herriari: meneko egoeran betiko mantentzearena, ala Estatuaren

---

1. Ikusi (Guevara, 2000).

biolentziaren aurka matxinatzearena. Horren inguruan, Estatuaren errepresioaren ondorioz Euskal Herrian matxinatu beharreko kontzientzia jada zabaldua zegoela uste zuen (*Ibid.*: 399). *Vasconian* euskal nazio-arazoa azaltzeko erabilitako ikuspegi kolonialista nahiz gerra iraultzailearen beharrezkotasuna indar handiz sartu ziren ETAREN garapen ideologikoan, hurrengo urteetako idazkietan islatu zen moduan.

### 3. Gerra iraultzailea ETAREN idatzietan

#### 3.1. *Guerra revolucionaria. La insurrección en Euskadi*

1964an ETAK urtebete lehenago argitaratu zuen *Guerra revolucionaria izeneko* formazio-koaderno berrargitaratu zuen *La insurrección en Euskadi* izenarekin. Koaderno horren bibliografian agertzen diren autoreak Federico Krutwig, Ernesto Guevara, Mao Zedong edota Claude Delmas<sup>2</sup> dira, besteak beste. Esan genezake garai horretako nazio-askapeneko mugimenduek munduan zehar egindako ekarpen ideologiko eta estrategikoen sintesia izan zela koaderno hori, ñabardura berezi batekin: Euskal Herriko testuinguruan aplikatzeko helburuarekin idatzia izan zela. Testuan gerra iraultzaileari emandako definizioa ez da Krutwigek *Vasconian* azaldutakoa, hots, gerraren azkenengo etapa iraultzailea (Krutwig, 2006: 396). Are gehiago, idazkian aipatzen den definizioa gerra eta iraultza klasikoaren kontzeptuetatik haratago kokatzen da:

La guerra revolucionaria es un conjunto de acciones de toda naturaleza (política, sociales, económicas, psicológicas, armadas, etc.) que tiende al derrocamiento del poder establecido en un país y su reemplazamiento por otro régimen, orden o sistema. La guerra revolucionaria es mucho más que una guerra (clásica) y que una revolución (clásica). Es la suma de las dos y de otros elementos, de los que el más importante es el psicológico, espiritual o ideológico<sup>3</sup>.

Maok, Guevarak edota Krutwigek esandakoarekin bat eginez, ETAK gerra psikologikoa nahiz herriaren oniritzia eta sostengua hartu zituen gerra iraultzailearen garaipenerako oinarrizko elementutzat. Izan ere, gerra iraultzailearen kutsu politiko eta militarren aurrean, ETAK bere ezaugarri ideologikoa lehenetsi nahi zuen<sup>4</sup>. Bestalde, urte batzuk geroago ETAREN estrategiaren muin bihurtu zen ekintza-errepresio-ekintzaren logika dialektikoa liburuxkan hautematen da, *Vasconian* dialektika horren inguruan aipatutakoa bere eginez<sup>5</sup>. Era berean, kolonialismoaren aurkako terminologia erabiltzen da testuan Estatuaren (espainola eta frantsesa) jarrera aipatzeko orduan. Ildo beretik jarraituz, nahiz eta liburuxkan Aljeriako FLN edota Vietnameko gerrillaren ereduak goraiatuak izan, ETAK Euskal Herriko ezaugarri geografiko, politiko eta sozial berezietan aplikagarria litzatekeen estrategia iraultzaile baten eraikuntzaren beharraz arduratzen da. Logika horren ondorioz, ETAK bere gain hartu zuen Krutwigek gerrilla moten inguruan esandakoa, hau da, Euskal Herriko errealitatea ikusita, *asfaltoko gerrillak* izan behar zuela gerra iraultzailearen motorra<sup>6</sup>. Koadernoan aipatzen den beste elementu

---

2. Ikusi (Delmas, 1963).

3. *La insurrección en Euskadi*. in (Egaña, 1993, 1. liburukia : 273).

4. *Ibid.* (274).

5. Ikusi (Krutwig, 2006: 402).

6. *La insurrección. op. cit.* (280).

garrantzitsu bat instituzio edo hierarkia paraleloak dira. ETAREN aburuz, behin-behineko instituzio horiek hurrengo funtzioa hartu behar zuten bere gain: instituzio okupatzaileen lekua hartu eta mugimendu iraultzaileen idealen arabera instituzio berri batzuk eratzea, etorkizuneko «Estatu liberatuan» administrazio nazionala osatuko luketenak, alegia<sup>7</sup>.

### 3.2. Carta a los intelectuales

Idazki horren helburu nagusia Euskal Herriko sektore intelektualei ETAREN planteamenduen azalpena egitea ez ezik, nazio-askapeneko borrokan sektore haien inplikazioa eskatzea ere bazen (Casanova, 2008: 52-53). Letamendiaren arabera, gutun hori ETAREN III. asanbladan onarturiko hierarkia paraleloen sormenerako lehenengo saiakera izan zen. Haren ustez, nabaria da ETA gutunaren nondik norakoak planteatzeko orduan Frantz Fanonen *Lurreko kondenatuak* liburuan sektore intelektualei buruz esandakoan oinarritu zela (1994: 293). Bruni-k beste faktore bat azpimarratzen du. Haren iritziz, nahiz eta, berez, intelektualei zuzenduta zegoen, gutun hori ETAK burgesia txikiari zein klase ertaineko sektoreei nazio-askapeneko mugimenduan parte hartzeko eginiko gonbidapena izan zen, EAJK sektore haiengan zuen hegemonia apurtzeko helburua zuena (1988: 59).

Testuaren lehenengo zatian, ETA borroka nazionalaren eta sozialaren arteko batasunaz aritzen da:

Para ETA no existe posibilidad práctica de conseguir la liberación nacional de Euskadi si no luchamos por la socialización de la economía vasca; y no podremos derrocar al capitalismo si la lucha no se dirige al mismo tiempo a conseguir la autodeterminación nacional del pueblo vasco. (...) resulta claramente que, para ETA, los problemas «nacional» y «social» son abstracciones de una misma realidad<sup>8</sup>.

Halaber, emakumezkoen askapeneko borroka bere egiteaz gain, ETAK langile etorkin espainiarrei iraultza integrean parte hartzeko deia zabaltzen zien

Para ETA es claro que el trabajador inmigrado esta cuando menos tan explotado como el oriundo del país. Por eso en nuestra lucha revolucionaria pedimos la participación de todos los trabajadores que hoy viven en nuestro suelo, sin distinción de origen. (...) Ahora bien, el cambio de estructuras vamos a hacerlo en Euskadi, va a ser una revolución vasca<sup>9</sup>.

Gutunari amaiera emateko, ETAK iraultzan parte hartzeko deia egiten zion herriari, norberaren esparruan, iraultza integralaren afera egia bihurtzeko.

Con esta carta os hemos mostrado un poco lo que somos. Pero todo conocimiento auténtico arrastra una acción y eso es precisamente lo que ahora pedimos de vosotros. Sois intelectuales. Criticad, demoled, pero sobre todo construid. (...) usa de todos los medios de expresión para que Euskadi viva una revolución integral<sup>10</sup>.

---

7. *Ibid.* (282-283).

8. *Carta a los intelectuales*. in (Egaña, 1993, 1. liburukia : 294-295)

9. *Ibid.* (295).

10. *Ibid.* (295 eta 296).

Bestalde, ETAk deitutako iraultza integralaren beste zutoinaren (borroka armatua) diseinu teorikoa beste dokumentu batean garatu zen; *Bases teóricas de la guerra revolucionaria* izenekoan, alegia.

### 3.3. *Bases teóricas de la guerra revolucionaria*

ETAk, *La insurrección en Euskadi* liburuxkan azaldutakoa aurrera eramateko baldintzarik ezaz jabetuta, Euskal Herrian aplikagarria izango zen gerra iraultzailearen planteamendu eraginkor bat eratzea beharrezkotzat hartu zuen (Casanova, 2008: 65). Hori dela-eta, *Bases teóricas de la guerra revolucionaria* idatzian, ETAk gerra iraultzaile kontzeptuaren definizio berri bat proposatu zuen; urte batzuk geroago erakundearen oinarri estrategiko bihurtu zen *ekintza-errepresio-ekintza* logika dialektikoa definizioaren muinean kokatuz:

Llamamos guerra revolucionaria vasca al proceso político-militar que tiene por meta la autodeterminación del pueblo vasco; haciendo evidente la calidad ocupante del sistema actual y que con este fin usa el mecanismo acción-represión repetido en espiral ascendente<sup>11</sup>.

Testuaren arabera, *ekintza-errepresio-ekintza* prozesua zikloka errepikatzearen ondoriozko egoera soziopolitikoa jasanezina izango litzateke Estatuarentzat. Egoera horretan, Estatuak euskal nazioaren existentzia onartzera behartuta kontzesio politikoak emango lituzke, independentzia politikoaren onarpena barne. Hori egia bihurtzeko, testuan esandakoaren arabera, gerra iraultzailearen lehenengo etapetan sektore atzerakoien jarduera bultzatu behar da, ahalik eta errepresio handiena sor dadin; eta azkenengo etapan, liberalen posizioa bultzatu behar da, Erregimenarekiko negoziaketak burutu ditzaten<sup>12</sup>.

Aurrekoaz gain, ETAREN eginbeharrekoak zehaztu ziren:

1) Erakundea sail ezberdinetan banatzea, errepresioaren aurrean ETAREN immunitatea bermatzeko; 2) informazio-zerbitzu eraginkor bat eratzea; bai ekintzak burutzeko, baita egoera soziopolitikoaren inguruko informazio zehatza izateko ere; 3) ETAREN ekimenak eragiten ez zituen zonetara heltzeko estrategia eratzea; 4) herriaren beharretan oinarritutako ideologia eraginkor bat garatzea; 5) ekintza armatuz arduraturiko taldeak sortzea<sup>13</sup>.

Laburbilduz, ETAk Euskal Herriko kasu partikularrerako gerra iraultzailearen aplikazio praktikoa ezartzeko oinarri teorikoa proposatzen zuen *Bases teóricas de la guerra revolucionaria* idatzian; proposamenaren muinean herriaren parte hartzea eta *ekintza-errepresio-ekintza* logika dialektikoa aukera errealista bakartzat hartuta euskal prozesu iraultzailearen garaipenerako.

Oro har, esan genezake ETAk *La insurrección en Euskadi* liburuxkarekin euskal nazio-arazoa kolonialismoaren kontrako mugimenduen eta gerra iraultzailearen logikaren bidez azaldu nahi izan zuen moduan, *Bases teóricas de la guerra revolucionaria* idatzian, ETAk gogoeta horren aplikazio praktikorako egindako lehen hausnarketa sakona aurkitzen dugula. Era berean, testutik atera gene-

11. *Bases teóricas de la guerra revolucionaria*. in (Hordago, 1979, 3. liburukia: 515) .

12. *Ibid.* (514-515).

13. *Ibid.*

zakeen ondorio bat «antolaturiko gutxiengo» baten beharrarena litzateke, hots, abangoardia armatuarena, ETAk bere gain hartu zuena (Casanova, 2008: 63).

### 3.4. «Hacia una estrategia revolucionaria vasca»

1968an K de Zunbeltz izengoitiarekin José Luis Zalbidek *Iraultza* aldizkarian argitaratutako artikuluak zeresan handia sortu zuen ETAko militante zein inguruko artean. Testuan zuzenki aipatu ez arren, kolonialismoaren kontrako planteamenduetatik inperialismoaren kontrako planteamendu teorikoetarako jauzi ideologiko bat topa dezakegu (Jauregui, 1981: 417). Izan ere, nazio-arazoaren inguruko garapen ideologiko horrek kritika zorrotzak jaso zituen ETAko tesi kolonialisten defendatzaileen aldetik, batez ere, Beltza eta Krutwigen aldetik (Egaña, 1993, 2. liburukia: 303). Horregatik, Zalbidek, jasotako kritikak aintzat hartuta, testuaren bigarren edizio bat idatzi zuen, *Fines y medios en la lucha de liberación nacional* izenekoa.

Testuaren lehenengo bertsioan zentratuz, baina, hurrengo urteetan ETAREN barneko eztabaida sutsuak sortu zituen masa-borrokaren eta borroka armatuaren arteko harreman dialektikoaz, Zalbideren aburuz, masa-mugimenduak mugimendu armatuarekiko menpekotasuna onartu behar du, hots, herriak erakunde armatuan delegatu behar du abangoardia iraultzailearen funtzioa (Letamendia, 1994: 344-345). Haatik, autoreak gerrillaren aspektu taktikoa onartzen du, hau da, Krutwigek *Vasconian* aitortu bezala, garaipen militarren aukera ukatzen da. Era berean, behar politiko eta ideologikoak lehenesten dizkie behar militarrei, borroka-ereduaren eta borrokaren eduki politikoaren arteko lotura azalduz<sup>14</sup>. Bestalde, 1968an bertan ETAk Melitón Manzanos polizia espainiarraren kontra egindako ekintzak euskal prozesu iraultzailearen aro berri bat zabaldu zuela dio Zalbidek; euskal mugimendu iraultzaileak defentsa estrategikotik ofentsibara igaro behar zueneko, alegia. Hala ere, Zalbidek, ETAREN gaitasun militarraz jabetuta, argitasunez adierazten du defentsa estrategikoaren eta ofentsibaren arteko dialektika:

Una defensiva estratégica no es incompatible con ofensivas de tipo táctico Si la desproporción de fuerzas en favor del opresor impone al pueblo vasco una defensiva estratégica, la táctica ofensiva tiene por finalidad precisamente el ir superando paulatinamente esa desproporción (...) En el aspecto puramente militar, la combinación de defensiva estratégica y táctica ofensiva es conocida como lucha de guerrillas<sup>15</sup>.

Halaber, ETAk ordura arte biolentziari buruz egindako teorizazioaren eta praktikaren arteko distantziak ohartzen da testuan, aipatu aro berrian biolentzia iraultzailearen inguruko teoria eta praktika maila berean kokatu behar direla adieraziz:

Queda superada la contraposición arrastrada durante años entre la teoría y la práctica revolucionaria. Se justificaba en teoría una violencia revolucionaria que no existía más allá del papel (...) La nueva ofensiva restituye —por el momento al menos— la unidad entre la teoría y la práctica revolucionaria<sup>16</sup>.

---

14. «Hacia una estrategia revolucionaria vasca» in (Egaña, 1993, 2. liburukia : 323).

15. *Ibid.* (324).

16. *Ibid.*

Aurretik aipatu ditugun Krutwig eta Beltzaren kritikak bi eremu hauetatik zihoa-zen: alde batetik, nazio-arazoaren oinarri koloniala alboratu izana eta, bestalde, kontresan nazionalaren aspektu iraultzailea gutxietsi izana (Letamendia, 1994: 344). Krutwigek berak kontraesan nazionalaren ezaugarrien berri eman zuen 1966an idatzitako testu batean. Bertan, euskal prozesu iraultzailearen eremu nazionalaren eta sozialaren arteko lotura ideologikoa ezarri nahi zuen. Testu hori *Nacionalismo revolucionario* izan zen.

#### 4. Nazionalismo iraultzailea eta V. asanblada

Lehen esan moduan, ETA kolonialismoaren aurkako teoriez baliatu zen gerra iraultzailearen eskema estrategikoa diseinatzeko orduan. Horrela, bere sorreraz geroztik ekuazio berean islatu nahi zituen bi aldagai sartzea lortu zuen, hots, nazio-arazoa eta biolentzia. Gainera, garai horretan munduan zehar garaile suertatzen ari zen ikuspegi iraultzaile batekin egin zuen. Hala ere, ETAREN ekuazio ideologikoan arazo sozialaren aldagaia ez zegoen oraindik guztiz argituta. Gerra iraultzailearen hausnarketarekin gertatu bezala, ETA Krutwigen idatzi batean oinarritu zen nazio-arazoa eta arazo soziala bat egiteko. Idatzi hori «Nacionalismo revolucionario» izenekoak izan zen.

##### 4.1. Krutwig eta nazionalismo iraultzailea

1966an *Branka* aldizkarian argitaratu zen artikulu horrek ETAREN V. asanbladan adosturiko oinarri ideologikoen muina ezarri zuen. Testuaren hasieran bertan, nazionalismo iraultzailearen kontzeptua definitzen da:

En los últimos años se ha visto nacer una nueva forma de lucha del hombre por su libertad y, muy en especial, de las clases trabajadoras por su liberación social. Esta nueva forma de combate es la llamada nacionalismo revolucionario<sup>17</sup>.

Testuan zehar ugari dira Lenin, Bakunin, Trotsky, Mao edota Truong Chinh-en teoriei<sup>18</sup> egindako goraiamenak. Ez da gauza bera gertatzen Engels eta komunismo klasikoaz aritzen denean:

En ese sentido se mostró (Engels) injustamente enemigo del nacionalismo checo y de otros pueblos (...) La teoría leninista (...) ha dado nacimiento al llamado nacionalismo revolucionario que es la forma de lucha que después de la guerra mundial han adoptado los pueblos sometidos al imperialismo para la obtención de su liberación nacional y su liberación social<sup>19</sup>.

Zentzu horretan, Krutwigek komunismo klasikoaren eta nazionalismo iraultzailearen arteko ezberdintze bat ezartzen du nazio-arazoari dagokionez. Haren ustez, komunismo klasikoak ez bezala, nazionalismo iraultzaileak herri zapalduen aspirazio nazionalak hartzen ditu bere gain, eduki nazionalistak eta iraultzaileak logika berean sartuz. Halaber, nazionalismo burgesarekiko alde ideologikoa ere nabarmentzen du, bakoitzak idiosinkrasia ezberdina duela argudiatuz<sup>20</sup>. Nazionalismo

17. "Nacionalismo revolucionario" (1966) in *Branka*, 1. zk. (7).

18. Leninen eragin ideologikoa oso nabaria da testuan zehar. Leninek nazio-arazoari buruz egindako ekarpenak jasotzeko, ikusi adibidez (Lenin, 1914; 1920). Ikusi ere (Bakunin, 1977; Trotsky, 2001; Zedong, 1974; Chinh, 1967).

19. *Ibid.* (7-8).

20. *Ibid.* (9).



iraultzailearen aplikazio praktikoaz, Krutwigek dio kasu bakoitzeko baldintzek ezartzen dituztela jarraitu beharreko irizpideak. Euskal kasu konkretuan, haren ustez, Hirugarren Munduko ereduari jarraitu behar zaio. Horren harira, eta Txinako adibidea erabiliz, euskal nazionalismo iraultzailean burgesia txikiaren eta ertainaren parte-hartzeari posible deritza<sup>21</sup>. Aldiz, Espainiako edo Frantziako ezkerrekin aliantzarik sortzea ez du aintzat hartzen:

El enemigo del pueblo vasco en esta lucha lleva un nombre simple se llama España (y en su caso Francia) (...) por España hemos de entender, en su caso, igualmente a la izquierda española (...) Poco importará que encubra su malintencionado y oculto designo bajo el manto de un pseudo-internacionalismo (...) que de hecho, representa una forma de colonialismo bajo el manto de izquierdismo<sup>22</sup>.

Izan ere, Krutwigen analisiaren arabera, euskal klase-borrokaren kontraesanak eta Espainiakoak ezberdinak baino areago antagonikoak dira. Antagonismo horiek hurrengo koadroetan islatu zituen:

(A) vasquismo/progreso	← →	(B) españolismo/reacción	<i>España</i>	<i>Vasconia</i>
En España la contradicción fundamental en su lucha de clases carece de los componentes nacionales y se plantea simplemente como			castellano feudalismo/burguesia reacción propiedad burguesa y feudal hispanidad	vascuence socialismo progreso propiedad social euskaldunidad
progreso	← →	reacción		

1. irudia. *Branka*, 1. zk.

Krutwigen ustez, beraz, eta Maok horretaz esandakoari jarraituz, kolonizaziopean dauden herriek aurre egin behar dioten kontraesanik handiena kontraesan nazionala da, eta horregatik, kontrairaultzailetzat hartzen ditu nazionalismoaz arnagutzen duten euskal mugimendu ezkeriak :

Un pseudo-revolucionario vasco, creyendo ser más revolucionario, en tal sentido se olvidare la condición primordial de un movimiento progresista revolucionario en Vasconia consiste en ser nacionalista, dejaría de ser revolucionario en la misma medida en que deja de ser nacionalista<sup>23</sup>.

Kontraesan nazionalaren harira, berriro ere Maok esandakoa aintzat hartuta, Krutwigek dio nazionalismo iraultzailearen garaipenerako bidean, herri zapaldu batek afera kulturalari funtsezko garrantzia eman behar diola; haren iritziz, aldagai kulturala *gerrillaren Estatu Gorena* da eta<sup>24</sup>.

Laburbilduz, Krutwigek nazionalismo iraultzailearen formularekin batu nahi zuten ordura arte ideologikoki hain aurkako ziruditen hiru kontzeptu: nazionalismoa, iraultza eta arazo soziala. Halaber, ETA ere nazionalismo iraultzailearen kontzeptuaz baliatu zen bere V. asanbladaren aurretik sortuak ziren ika-mika ideologikoei irtenbidea emateko, orain ikusiko dugunez.

21. *Ibid.* (10).

22. *Ibid.* (11).

23. *Ibid.* (19).

24. *Ibid.* (13).

## 4.2. ETaren V. asanblada: *Euskal nazio askapeneko mugimendu sozialista*

1965ean ETaren IV. asanbladan *Bases teóricas de la guerra revolucionaria* txostena onartu zenetik 1966ko V. asanbladako I. zatia burutu arteko denboraldia ideologikoki oso liskartsua izan zen erakundearen baitan. Zenbait atxiloketa eta ihesaldiren ondorioz sortutako ETaren Bulego Politiko berriak kolokan jarri zituen IV. asanbladan onartutako gerra iraultzailearen inguruko oinarri ideologiko eta estrategikoak. Konkretuki, nazio-arazoa azaltzeko ikuspegi kolonialista eta *ekintza-errepresio-ekintza* aukera estrategikoa alboratuak izan ziren ETaren diskurtso ofizialetik. Haien ordeaz, André Gorz-en<sup>25</sup> eta Europako ezker berriaren teoretan oinarritutako «erreforma ez erreformistak» kontzeptuan funtsatuta zegoen aukera estrategikoa bultzatu nahi zuten (Bilbao, 1996). Aukera berri hori, «boterearen mailakako erdiespenean» zetzan<sup>26</sup>, IV. asanbladak bultzaturiko bide iraultzailea baztertuz. Jokin Apalategik hiru puntu nagusitan laburbiltzen ditu (2006: 159) aukera horren nondik norakoak: 1) klase-borroka Estatu mailan antolatu nahi zuten, ETA erakunde autonomo gisa desagerraraziz; 2) europar moduko mugimendu sindikala eratu nahi zuten; 3) borroka armatua alboratu nahi zuten, errepresioaren sorburutzat hartzen zuten eta.

Bulego Politikoaren jarrera hori *españolistatza* hartu zuten IV. asanbladako tesien defendatzaileek. Hori dela-eta, erakundearen estrategia gerra iraultzailearen parametroetara itzultzeko eta euskal nazio-arazoa eta arazo soziala formula zatiezin baten bidez azaltzeko helburuarekin, 1966an ETaren V. asanblada antolatu zen.

### 5.2.1. V. asanbladako I. zatia: Posiciones ideológicas

1966ko udan zehar, ETAko zenbait militantek Bulego Politikoaren norabide ideologikoaren aurkako txosten bat idatzi zuten. Txosten hori *Informe verde* izenez ezagutu zen (inprimatu ziren orriak berdeak ziren eta). Idatzitako testuari beste militante batzuek eginiko zuzenketak jaso eta gero, txostena berridatzi zen. Azken bertsio hori izan zen *Informe verde revisado* izenez ezagutu zena (Hordago, 1979, 7. liburukia: 56). 1966ko abenduan burutu zen V. asanbladako I. zatian, aurrekoaz gain beste lau txosten aurkeztu ziren, haien artean, J. A. Etxebarrietak idatzitako *Análisis y crítica del españolismo social-chauvinista* (Txatarra informe gisa ezagutu zen hori), Bulego Politikoaren norabidea salatzea helburu zuena. Horretaz gain, eztabaidatuak izan ez ziren beste hiru txosten aurkeztu ziren, Bulego Politikoak aurkeztutako *Por una izquierda socialista revolucionaria vasca* barne, zeinetan, beste elementu batzuen artean, ETaren adar militarren desagertzea bultzatzen baitzen (*Ibid.*: 67). *Informe verde revisado* ez zen onartu, asanbladaren aurretik aurkeztu ez zutelako. Hala ere, asanbladaren amaieran erredaktatu zen *Posiciones ideológicas adoptadas por la V. Asamblea* testuan, aipatu txostenean emandako definizio ideologikoak aintzat hartu ziren (Hordago, 1979, 7. liburukia: 56). Testu horretan, euskal prozesu iraultzailearen elementu garrantzitsuen definizioak agertzen ziren, hala nola etnia, nazio eta gerra iraultzailearen arteko harreman dialektikoa, hurrengo koadroaren arabera definitua izan zena:

25. Ikusi (Gorz, 1969).

26. Ikusi *Acción sindical* in (Hordago, 1979, 5. liburukia: 89).

CONDICION OBJETIVA	supone la ETHNIA
base de	
CONDICION SUBJETIVA INTERNA	crea la NACION
voluntad de subsistencia colectiva	
GUERRA REVOLUCIONARIA	supone RECONOCIMIENTO IMPLICITO
represión	
CONDICION SUBJETIVA EXTERNA	
EJERCICIO DE AUTODETERMINACION	

## 2. irudia. Hordago, 1979.

Burgesia nazionalari dagokionez, ETAk bere izaera iraultzailea onartzen zuen prozesu iraultzailearen fase nazionalak iraun bitartean (Hordago; 1979, 7. liburukia: 174). Haatik, ETAk garbi utzi zuen *herri langilea* zela iraultza integrala garai-penera eraman zezakeen bakarria (*Ibid.*: 175). Horrekin lotuta, testuaren arabera, ETAREN zereginak hurrengoak ziren:

1) Herriari nazio-klase kontzientzia zabaltzea; 2) euskal teoria iraultzailea sortzea; 3) Euskal Herriko baldintza objektiboetan oinarritutako estrategia baten bidez teoria iraultzailea praktikara eramatea (*Ibid.*: 176). Halaber, erakundearen arabera, EAJ, bai eremu nazionalen baita eremu sozialean ere gaindituta zegoen alderdia zen (*Ibid.*).

V. asanbladako I. zati horretatik bi elementu nagusi nabarmen ditzakegu: alde batetik, Bulego Politikoaren inguruko militanteen kanporatzea (haiek izan ziren aurrerago ETA-berri sortu zutenak), bestalde, nazio-arazoa eta arazo soziala kontzeptu ideologiko berean azaltzeko abiapuntua ETAREN aldetik. Hurrengo urtean ospatu zen V. asanbladako II. zatian, erakundeak urrats sendoagoak eman zituen zeregin horretan, orain ikusiko dugunez.

### 4.2.2. V. asanbladako II. zatia: Ideología oficial de Y

ETAREN V. asanbladako II. zatia 1967ko martxoan burutu zen. Bertan, hainbat txosten aurkeztu ziren eztabaida politikorako: I. zatian irakurritako *Informe verde revisado* idatziaz gain, Txillardegik gidatutako jaidurak aurkeztutako *Ponencia ideológica* eta *Ponencia sobre el Frente Nacional* ere irakurri ziren (Egaña, 1993, 2. liburukia: 86)<sup>27</sup>. Haren ustez, ETA Euskal Fronte Nazionala bihurtu behar zen, masa-ekimenak bideratzeko, sistemak sortutako aukera legalez baliatzeko eta, batez ere, esparru kulturean eragina izateko (*Ibid.*: 87). Txostenak irakurri ostean, eztabaidarako lau lantalde eratu ziren: 1) aktibismoa; 2) estrategia; 3) ideologia; eta 4) estruktura (Hordago, 1979, 7. liburukia: 79). Bigarren lantaldean hartutako erabakiak asanbladako I. zatian eztabaidatutakoaren ildotik joan ziren, hau da, erakundea lau frontetan banatzea: kulturala, sozioekonomikoa, politikoa eta militarra. Eremu ideologikoari dagokionez, *Informe verde revisado* eta Krutwigek idatzitako *Nacionalismo revolucionario* testuetan azaldutakoaren sintesi bat aurkeztu zen *Ideología oficial de Y* izena hartu zuen asanbladaren behin betiko txostenean, zeinetan ETA *Euskal nazio askapeneko mugimendu sozialista* bezala definitua izan baitzen (Garmendia, 1979: 224). Aipatu txostenean, nazionalismo iraultzailea hartu zen ETAREN ideologia ofizialtzat, hura horrela definituz:

27. Jaidura horrek aurkeztutako beste idazkiak ez ziren ezta aipatuak izan asanbladan (Egaña, 1993, 2. liburukia: 86).

El nacionalismo revolucionario tiene por fin el desarrollo pleno del pueblo y del hombre vasco, eliminando por tanto todas las alienaciones que padece el Pueblo Vasco (...) En nuestro caso concreto, el Nacionalismo Vasco es subjetivamente revolucionario y su lucha es una aportación y una lucha del internacionalismo proletario<sup>28</sup>.

Estrategiari zegokionez, ez zen aldaera handirik egon IV. asanbladan onartu-takoarekin alderatuta, *ekintza-errepresio-ekintzak* jarraitzen baitzuen ETAREN oinarritzko metodo estrategikoa izaten. Esan daiteke, baina, ETAK biolentzia erabiltzearen inguruko eztabaida garatutako prozesu ideologikoaren ondorioz itxi zuela, borroka armatua aukera estrategikotzat ez ezik, elementu ideologikotzat ere hartu zuelarik.

Beraz, ikusi dugun moduan, ETAK nazio-arazoa, arazo soziala eta biolentzia nazionalismo iraultzailearen formulapean bateratu zituen. Hala ere, ustezko adostasun ideologiko horrek ez zuen denbora luze iraun. Laster, marxismoaren interpretazioa eta erakundearen izaera bera bihurtu ziren ETAREN barneko tentsio-arrazoiak. 1970ean tentsio horiek zatiketa berriak eragin zituzten erakundeetan.

## 5. Marxismoa eta nazionalismoa. 1970eko zatiketak

V. asanbladaren osteko urteetan hiru jaidura ezberdin zitezkeen argitasunez ETAREN baitan. 1966an ETA-berriren zatiketa burutu zen moduan, 1970ean ere aipatu jaiduren arteko ika-mikek zatiketa berriak eragin zituzten euskal erakundeetan. Alde batetik, ETAREN V. asanbladan adostutako oinarri ideologiko eta estrategikoak indarrean mantentzen zituen jaidura zegoen, ETA-V bezala ezagutu zena (gerora, ETAREN siglak bere gain mantendu zituen bakarra). Bigarrena, borroka armatuaren estrategia kolokan jartzeaz gain, Espainiako Estatu mailako alderdi marxista-leninista sortzeko helburua zuena zen (Egaña, 1993, 2. liburukia: 41), *Células Rojas* izenarekin ezagutu zena, alegia. Eta hirugarrena, 1970eko asanblada deitu zuena izan zen, ETA euskal langileen alderdi bihurtu nahi zuena, eta urte batzuk geroago, *Células Rojas* taldeak egin bezala, nazionalismoaz arnegatu zuena; ETA-VI edo ETA-sexta zeritzona. Aipatu hiru jaiduren arteko ika-mikez zentratuko gara hurrengo lerroetan.

### 6.1. Células Rojas-Saioak

*Células Rojas* taldeak ETAREN V. asanbladan adostutako oinarri ideologiko eta estrategikoei egindako kritika handienak hiru eremutan bana daitezke: nazio-arazoaren interpretazio ideologikoa, borroka armatuaren erabilera eta mugimendu iraultzailearen antolamendu-eredua (Egaña, 1993, 3. liburukia: 39). Aipatu kritikak, euskal nazio-arazoari marxismo klasikoaren eta, batez ere, Stalinen Estatu multinazionalen arazoaren inguruko teorien<sup>29</sup> aplikatze zorrotzaren ondorioz uler daitezke (Iztueta eta Apalategi, 1977: 83). Letamendiak hiru puntu nagusitan ikusten du talde horren berezitasuna orduko ETAREKIN alderatuz: 1) borroka armatua errefusatu du; 2) nazionalismoa (euskal nazionalismoa barne) ideologia burgesizat hartzen du; 3) klase-borroka Espainiako Estatu mailan eraman nahi du

---

28. *Ideología oficial de Y* in (Hordago, 1979, 7. liburukia: 98).

29. Ikusi (Stalin, 1913).

aurrera (1980: 11). Talde horrek *Saioak* aldizkarian bildu zituen bere oinarri ideologikoak eta proposamen estrategikoak. 1972an argitaratutako 3. *Saioak* aldizkarian borroka armatuaren kontrako jarrera adierazi zuen:

La estrategia de guerrilla aplicada hoy a Euskadi está determinada por el contenido de la lucha burguesa de la historia de ETA (...) Creemos que únicamente la lucha de masas dirigida y orientada por el proletariado podrá resolver el problema social, fundamento de la inadaptación nacional de Euskadi<sup>30</sup>.

Haatik, talde horrek zenbait ekintza armatu burutu zituen 1970eko udaberritik aurrera, ekintza gehienak bankuen lapurretak izanik (Jauregui, 1981: 469). Era berean, nahiz eta nazionalismo mota ororen kontrakotasuna adierazi, euskal langileek, internazionalistak ziren heinean, Espainiako Estatuaren nazio-batasuna defendatu behar zutela errebindikatzeko (Iztueta eta Apalategi, 1977: 95).

No al nacionalismo porque él aleja a los pueblos; sí al internacionalismo, porque los une. Al nacionalismo siempre burgués y divisor, el proletariado opone su internacionalismo unitario. El proletariado lucha contra todo nacionalismo y continúa hasta destruir sus causas: la burguesía<sup>31</sup>.

Ikus daitekeenez, Células Rojas taldeak hartutako bide ideologikoa ETAREN V. asanbladan adostutako oinarrietatik erabat urruntzen zen. Are gehiago, V. asanbladan euskal nazioaren oinarritzko elementutzat hartu zen etnia kontzeptuaren aurkakotasuna adierazi zuen, kontzeptu metafisiko eta existentzialista zela argudiatuz (Egaña, 1993, 3. liburukia, 40). Halaber, euskal langileen alderdia sortzearen aurka azaldu ez arren, formazio politikoan sakontzeko etapa ezberdinak igarotzea beharrezkotzat hartzen zuen urrats hori eman aurretik. Hori izan zen, hain zuzen ere, 1970eko asanbladaren talde bultzatzailearekiko (ETA-sexta) ezadostasun nabariena.

## 6.2. ETA-sexta

1970eko asanblada deitu eta haren zilegitasuna onartu zuen jaidura bakarra dugu hau, V. Asanbladan adostutako oinarriak kolokan jarri eta gero. Talde horren kritika nagusiak hurrengo puntuetan zentratu ziren: 1) lau fronteen eskema; 2) ekintza-errepresio-ekintza dinamikaren eraginkortasuna; 3) ETAREN antolaketa-eredua: mugimendua ala alderdia; 4) Euskal Herriaren zapalkuntzaren jatorria; 5) fronte nazionala eta euskal burgesiarekiko aliantzak (Iriarte, 1980: 25). Borroka armatuari dagokionez, nahiz eta 1970ean horren beharra ez ukatu, nazionalismoarekiko lotura zuenekoaren aurkakotasuna agertzen zuen ordurako 52. *Zutiken*:

Lo que tiene de progresista la afirmación sin equívocos de la necesidad de la violencia revolucionaria es anulado por el hecho de afirmarlo a partir de una concepción estrechamente chauvinista (nacionalismo burgués) (Apalategi, 2006: 166).

53. *Zutiken*, ETA-sextak nazionalismoarekiko apurketa ideologikoa adierazi zuen: «En ETA se ha producido en los últimos tiempos una ruptura, un corte: el corte con la ideología nacionalista y con manifestaciones de dicha ideología en la práctica política». Horrekin lotuta, euskal nazio-askapena kontzeptu burgestzat

30. *Saioak* 2. zk. (45) in (Apalategi, 2006: 166).

31. *Ibid.*

hartu zuten, eta Espainiako Estatuaren barneko Euskal Herri libre bat aldarrikatzen zuten (Iztueta eta Apalategi, 1977: 103), internazionalismoaren argudioa erabiliz. Hala ere, ez zuten argitasunez azaltzen Euskal Herriko independentziaren inguruko jarrera. Autodeterminazio-eskubidea defendatzera mugatzen zen, balizko independentzia-prozesu batean haren alde edo kontra agertuko litzatekeen azaldu gabe. Halaber, aipatu 52. *Zutiken* ETAREN ordura arteko izaera gogor kritikatu izan zen: «ETA era una organización populista, marginada del movimiento de masas y movilizada por inquietudes individualistas». V. asanbladako tesien defendatzaileen aburuz, bai Células Rojas zein ETA-sexta jaidurak ETAREN barneko desbideratze espainolistak ziren, eta haien aurrean V. asanbladan onartutako ETAREN definizioa, hots, *euskal nazio askapeneko mugimendu iraultzailea* mantendu zuten. Horiek, ETA-V bezala ezagutu ziren.

### 6.3. ETA-V

1970ean ETAREN baitan zegoen hirugarren jaidura zen hau, 1966-67ko V. asanbladan adostutakoaren jarraitzaileak, hau da, nazionalismo iraultzailearen eta gerra iraultzailearen printzipioen defendatzaileak. Beste bi jaiduren aldarrikapenen aurrean, honek aliantza estrategikoa defendatzen zuten burgesia nazionalarekin, Nazio Frontearen aldeko logikapean. Halaber, Estatu mailako langile-frontea sortzearen aurkakotasuna adierazten zuten:

Es una necesidad aliarse con las clases burguesas y pequeño-burguesas en un Frente Nacional (...) comprometerse con los trabajadores de dos naciones opresoras obliga a una seria problemática de explicación de nuestro problema nacional para evitar que la ideología dominante aliene estas alianzas y las convierta en una negación de nuestra lucha por la independencia<sup>32</sup>.

Era berean, borroka armatuaren eta masa borrokaren arteko harreman dialektikoa defendatzen zuten beste bi jaiduren bateraezintasun-argudioen aurrean.

Lo que es completamente metafísico es oponer «las acciones militares» a «las acciones de masas»; las dos se complementan, el salto dialéctico importante es el momento en el que se pasa de las acciones de grupos de vanguardia a las acciones armadas populares<sup>33</sup>.

Jaidura honetako bost kidek, guztiak V. asanbladan hautatutako ETAREN Biltzar Ttipiko kideak izanda, testu bat sinatu zuten 1970eko asanbladarako deia indargabetuz.

Berriz ere, talde arrotz batzuk, batez ere espainolak saiatu eta saiutzen dira euskal politika egileen artean nahaspila pizten. Badira ere haien burua abertzale daukatenak eta gazteria bide galgarri batera bildu nahi dutenak, espainol edo frantses asuntuak konpontzeko<sup>34</sup>.

Testugileen arabera, biltzar hori deitu zuten Komite Exekutiboak ez zuten hura deitzeko zilegitasunik, eta, horregatik, biltzarrerako deia ukatzeaz gain, Células

---

32. 59. *Zutik* in (Apalategi, 2006: 168).

33. *Ibid.*

34. *Seigarren Biltzarraren kontrako agiria* in (Egaña, 1993, 3. liburukia: 247).

Rojaseko kideak erakundetik kanporatzea erabaki zuten. Era berean, Fronte Nazionalaren aldeko aldarria berresten zuten<sup>35</sup>.

Hurrengo taulan hiru jaiduren arteko alde ideologiko eta estrategiko nagusiak islatzen dira.

	<b>Células Rojas (Saioak)</b>	<b>ETA-sexta</b>	<b>ETA-V</b>
<b>Biolentzia</b>	Kontra	Zalantzan	Alde
<b>Independentzia</b>	Kontra. Espainiaren barneko autonomiaren alde	Zalantzan. Autodeterminazio- eskubidearen alde (maila teorikoan)	Alde
<b>Antolaketa</b>	Estatu mailako mugimendua ETA: erakunde gisa desagertu	Estatu mailako mugimendua ETA: euskal langileen alderdia	Euskal Nazio Frontea ETA: frontearen abangoardia
<b>Nazionalismoa</b>	Kontra	Kontra	Alde: nazionalismo iraultzailea

**1. taula. Autoreak egina.**

Burgoseko epaiketaren ostean ETA-V izan zen erakundearen zilegitasun historikoa mantendu zuena<sup>36</sup>, nahiz eta ideologikoki gogoeta kolonialistekin apurketa egon zen, batez ere, 1972an EGI-Batasuna ETAn sartu zenez geroztik, erakundearen militanteen kopurua nabarmenki handituz. Aspektu ideologikoari dagokionez, Burgoseko epaiketaren osteko ETA tesi kolonialistak alboratzen joan zen, Zalbideren *Fines y medios de la lucha de liberación nacional* idatzian defendatutako ideia antiinperialistak erakundearen zigilu ideologiko nagusia bilakatzen hasi zirelarik (Jauregui, 1981: 470). Horrek eta borroka armatuaren eragin-kortasunean zegoen sinesmen osoak erakundearen hurrengo urteetako oinarri ideologiko eta estrategikoen garapenaren abiapuntua ezarri zuten.

## **6. Azken gogoeta, ondorio gisa**

Bere historiako lehenengo hamabi urteetan, ETAREN garapen ideologikoa eten-gabekoa izan zela baieztatu dezakegu. 1958an EAJren ildo ideologikotik argiki bereizten ez zen erakunde gisa jaiotzetik, Hirugarren Munduko nazio-askapeneko esperientzietan ideologikoki oinarritutako euskal nazio-askapeneko mugimendu sozialista definitzera igarotako erakundea dugu ETA. Euskal erakundearen

35. *Ibid.* (248).

36. Burgoseko epaituen hausnarketek inflexio-puntu bat ezarri zuten ETAREN garapen ideologikoan. Horrela, ETako militante horiek marxismo-leninismoa era esplizituan onartzean eta ETA-sexteri erakundearen zilegitasuna ematean, bai Células Rojas aukera «likidazionista» nahiz ETA-Veko tesi kolonialisten defendatzaileen aukera (Krutwig, Beltza, Madariaga...) orduko ETAREN oinarri ideologikoetatik at kokatuak izan ziren. Gogoeta horiek *Documento de los presos de Burgos dirigido al Biltzar Tipia de su organización Euskadi ta Askatasuna* idazkian bildu ziren (Hordago, 1979, 10. liburukia: 199-218). Halaber, Burgoseko epaiketaren osteko ETAK bere egin zituen epaituen tesiak, 63. *Zutiken* modu agerian azalduz. Ikusi 63. *Zutik* in (Hordago, 1979, 12. liburukia: 355-362). Ikusi, gehigarri gisa, (Garate, 1971).

garapen ideologikoa azaltzeko orduan, badaude zenbait elementu arreta berezia merezi dutenak. Lehenengo, ETAREN euskal nazio-arazoaren definizioa litzateke. Alde horretatik, ETAREN sorrerako garaian indarrean zeuden nazio-askapeneko mugimenduek nazio-arazoa ulertzeko formula berritzaile bat erakutsi zioten erakundeari: kolonialismoaren kontrako ikuspegia, alegia. Ikuspegi horren bidez, eta Hirugarren Munduan, batez ere Kuban, Aljerian eta Txinan garaile suertatu ziren nazio-askapeneko mugimenduen ereduak erreferentetzat hartuz, ETA biolentzia erabiltzeko aukeraz teorizatzen hasi zen, gerra iraultzailearen oinarriak bere eginez.

Gogoeta teoriko horretan, Fanon, Mao Zedong, Truong Chinh, Guevara edota Krutwigen teoriak eragin zuzena izan zuten. Izan ere, ETAK gerra iraultzaileak Euskal Herrian jarraitu beharreko irizpideen definizioari ekin zion. Erakundearen III. asanbladan onartutako *Guerra revolucionaria. La insurrección en Euskadi* testuan topatzen dugu ETAK eremu horretan egindako lehen hausnarketa sakona. Bertan, euskal gerrillaren ezaugarriak definitu zituen, kolonialismoaren kontrako ikuspegi ideologikopean. Haatik, praxiari dagokionez, ETA laster jabetu zen Hirugarren Munduko eta Euskal Herriko baldintza objektiboen arteko ezberdintasunez gerra iraultzailea aurrera eramateko. Horregatik, eta Euskal Herriko baldintza objektiboak kontuan hartuta, ETAK gerra iraultzailearen hausnarketa teorikoa garatzen jarraitu zuen; *Carta a los intelectuales, Bases teóricas de la guerra revolucionaria* eta *Hacia una estrategia revolucionaria vasca* idatzietan garapen hori islatuz. Hain zuzen ere, IV. asanbladan onartutako *ekintza-errepresio-ekintza*ren azalpenean suma daiteke garapen horren funtsa, Estatua militarki garatzeko ezintasunaz arduratuta, ETAK deitutako iraultza integralean herriaren inplikazioa eskatzen duelarik, eskema gerrillari hutsak alboratuz.

Lehen azaldutakoari jarraituz, hurrengo formularen bidez adieraz daiteke ETAK nazio-arazoaren eta biolentziaren inguruan egindako hausnarketan arteko harremana:

X = Nazio-arazoaren interpretazio ideologikoa (ETAREN kasuan kolonialismoaren aurkako teoriak).

Y = Biolentziaren inguruko hausnarketa teorikoa (ETAREN kasuan: kolonialismo espainiarraren aurkako gerra iraultzailearen ondorio praktikoa).

b = Kanpo-eraginak (nazioarteko esperientzien eraginak: ETAREN kasuan Hirugarren Mundukoak).

Z = Biolentziaren erabilera estrategikoa (*ekintza-errepresio-ekintza*).

c = Euskal baldintza objektiboak (garai horretan: erregimen frankista Espainiako Estatuan).

$$Y=bX$$

$$Z=cY$$

$$Z=cbX$$

Behin biolentzia eta nazio-arazoa aldagaiak ETAREN eremu ideologikoan gerra iraultzailearen formularekin definituta zeudela, euskal erakundeak arazo soziala eta nazio-arazoa ekuazio berean islatuko zituen formula ideologikoa definitzeari ekin zion. Helburu horrekin, eta Krutwigen *Nacionalismo revolucionario* idatzian esandakoan oinarrituz, ETAK nazionalismo iraultzailea oinarri ideologikotzat hartu zuen bere V. asanbladan, euskal nazio-askapeneko kontzeptuari ñabardura soziala inтрintsekoki erantsiz.

ETAK ez zituen, baina, nazionalismo iraultzailearen formularekin bere barneko jaidura guztiak ideologikoki bateratu. Izan ere, V. asanbladan ETA-berri eta



*Brankaren* zatiketak eragin zituzten haustura ideologikoak hurrengo urteetan areagotu ziren, 1970ean puntu gorenera ailegatuz, ETA hiru zatitan banatu zelarik: Células Rojas, ETA-V eta ETA-sexta. Kasu horretan, nazionalismoaren eta marxismoaren arteko dialektika, erakundearen antolaketa-eredua, biolentziaren baliagarritasuna eta independentzia nazionalaren beharraren inguruko ezadostasunak izan ziren hausturarako arrazoi nagusiak.

Aipatu ETako barne-zatiketa bakoitzak bere bidea hartu bazuen ere, denbora-ekin ETA-V izan zen erakundearen garapen historikoa ez ezik, izena ere mantendu zuen bakarra (tesi kolonialistak alboratu ondoren); ETaren sorreratik bertatik abiatutako nazio-arazoa, arazo soziala eta biolentzia aldagaien arteko harremanaren inguruko hausnarketa teorikoa garaian garaiko testuinguru soziopolitikoan garatzen jarraitu zuena, alegia.

## Bibliografia

- Aiartza, U. eta Zabalo, J. (2010): "The Basque Country: The Long Walk to a Democratic Scenario", *Berghof Transitions Series*, 7, Berghof Conflict Research, Berlin.
- Apalategi, J. (2006): *Los vascos. De la nación al Estado*, Herritar berri SLU [1. arg. 1979an].
- Autore batzuk (1984): *Nacionalismo y socialismo en Euskadi*, IPES, Bilbo.
- Bakunin, M. (1867): *Federalismo, socialismo y antiteologismo: consideraciones filosóficas sobre el fantasma divino, sobre el mundo real y sobre el hombre*, in D. Abad de Santillán (itzul.), *Obras de Bakunin*, Júcar, Madril (3. liburukia).
- Bilbao, K. (1996): *El nacimiento de E.T.A. (1959) la primera escisión (1966-1967) y la formación de E.M.K.*, dok. elektronikoa: <<http://kepabilbao.com/files/politica/politica2.html>> [Kontsulta: 2012ko abuztuaren 27an].
- Bruni, L. (1988): *ETA. Historia política de una lucha armada* (I. zatia), Txalaparta, Tafalla [1. arg. italieraz 1980an, 1. arg. gaztelaniaz 1987an].
- Casanova, I. (2008): *ETA 1958-2008 Medio siglo de historia*, Txalaparta, Tafalla.
- Chinh, T. (1967): *La resistencia vencerá*, Ediciones en lenguas extranjeras, Hanoi.
- Delmas, C. (1963): *La guerra revolucionaria*, Huemul, Buenos Aires.
- Egaña, I. (1994): "Siglo XX. El surgimiento de Euskadi ta Askatasuna y la época de la transición", in *Guda eta bakea Euskalerrian. Conflicto y negociación. Análisis histórico*, IPES, Bilbo, 81-88.
- Egaña, I. et al. (1993): *Euskadi eta askatasuna. Euskal Herria y la libertad*, Txalaparta, Tafalla [10 liburuki].
- Fanon, F. (2006): *Los condenados de la tierra*, Fondo de cultura económica, Mexiko DF (Edizio elektronikoa [1. arg. frantsesez 1961ean, 1. arg. gaztelaniaz 1963an]).
- Garate, G. (1971): *Marxen marxismoa*, Mensajero, Bilbo.
- Garmendia, J. M. (1979): *Historia de ETA* (I. zatia), Ed. Luis Haranburu, Donostia.
- Guevara, E. (2000): *La guerra de guerrillas* (edizio elektronikoa), Granma Internacional / Biblioteca de Textos Marxistas (1. arg. 1960an).
- Gorz, A (1969): *Estrategia obrera y neocapitalismo*, Ed. Era SA, Mexiko DF [1. edizioa frantsesez, 1964an].
- Hordago, E. (1979): *Documentos Y*, Ed. Lur, Donostia [18 liburuki].
- Iriarte, J. M. (1980): "La crisis ideológica en 1970. El proceso de Burgos. Aportaciones del marxismo revolucionario ante el problema nacional", in *IPES formazio koadernoak*, 1, Bilbo, 24-31.

- Iztueta, P. eta Apalategi J. (1977): *El marxismo y la cuestión nacional vasca*, Ed. Itxaropena, Zarautz [1. arg. euskaraz 1974an].
- Jauregi, G. (1981): *Ideología y estrategia política de ETA: Análisis de su evolución entre 1959 y 1968*, Ed. Siglo XXI, Madril.
- Krutwig, F. (2006): *Vasconia*, Herritar berri SLU [1. arg. 1963an].
- Lenin V. I. (1914): *El derecho de las naciones a la autodeterminación*, edizio elektronikoa: <<http://www.marxists.org/espanol/lenin/obras/1910s/derech.htm>> [Kontsulta: 2013ko martxoaren 10ean].
- , (1920): *Informe de la Comisión para los Problemas Nacional y Colonial*, edizio elektronikoa: <<http://www.marxists.org/espanol/lenin/obras/1920s/internacional/congreso2/03.htm>> [Kontsulta: 2013ko martxoaren 10ean].
- Letamendia, F. (1980): “La construcción de una alternativa revolucionaria: de la V Asamblea, ETA a KAS”, in *IPES formazio koadernoak*, 1, Bilbo, 10-16.
- , (1994): *Historia del nacionalismo vasco y ETA* (I. zatia), R&B Editores, Donostia.
- Stalin V. (1913): *El marxismo y la cuestión nacional*, edizio elektronikoa: <<http://www.marxists.org/espanol/stalin/1910s/vie1913.htm>> [Kontsulta: 2013ko martxoaren 5ean].
- Trotsky L. (2001): *La revolución permanente*, Fundación Federico Engels, Madril [1. edizioa errusieraz 1930ean].
- Zedong, M. (1974): *Obras Escogidas*, Ed. Fundamentos, Madril.



